

[...] “Miembros de los Koalas acumulan hasta cinco años de historial delictivo”, horrela dio 2021/08/05ean argitaratutako Diario Vasco egunkariaren titular batek. Bost urteko jarduera poliziala eta bost urteko jarduera judizialik eza. Bost urtez polizia bere lana egiten, eta bost urtez astapetro horiek Epaitegiko ate batetik sartzen eta beste ate batetik ateratzen. Horretarako, ez dugu epaileen beharrik. Bide batez, psikopata horiek kanpotarrak balira, haien egonaldia ordaintzen jarraitu beharko al genuke? Bai? Aizue, ergel-lehiaketa bat egingo bagenu, agian lehen saria irabaziko genuke, ezta?

[...] El País egunkariak argitara emandako informazio baten arabera, Koala taldeko kideek bi hamarkada daramatzate jendeari erasotzen eta doako jipoiak ematen. Beraz, neure burua zuzendu beharra daukat: ez daramate 5 urte epaitegiko ate batetik sartzen eta beste ate batetik ateratzen; 20 urte baizik, ate batetik sartzen eta beste ate batetik irteten! 20 urte!! Nire ustez, oraintxe bertan, ergelenak izateko, ez dugu ergel peto-petoen lehiaketara aurkeztu beharrik. Bagara ergelenak eta. A, baina zer ondo sentitzen garen jakinda Samaritano Onaren papera, Solidario Zoriontsuaren antzezpena zintzo arraio betetzen dugula.

[...] Gainera, Ertzaintzak jakitera eman duenez, Euskadin bakarrik Koala taldearen antzeko beste 24 talde inguru daude. 24 talde! Koalak taldean 30ren bat kide ziren. Eman dezagun 20 kide direla talde antolatu bakoitzeko. Horrek, guztira, 480 matxito putakume egiten ditu, denak jipoiak ematen Euskal Herrian zehar, artearekiko maitasunagatik edo. Denak epaitegiko ate batetik sartzen eta beste ate batetik irteten! Bueno, baina, legea nor arraiorekin dago? Zer gara ba, estatu huts egin bat ote gara? Edo, akaso, hemen huts egiten duten bakarrak Justizia Epaitegiak dira?¹ Epaitegiak alde batera utzita, pentsatzen dut hori dela ordaindu beharreko prezioa beste alde batera begiratzeagatik, ezta?, eta bizitzan zehar superjatorrarena egiten ibiltzeagatik, eta oin-puntetan igarotzeagatik delinkuentzia bortitz, erradikalizatu eta sistematizatu baten aurretik.

Kanpotarrak badira, kartzelara eta segituan euren herrira; eta hemengoak badira, kartzelara. Azken hauek jasango ditugu, nola

¹Jakina, nahi dutenean badakite ondo zorrotzak izaten. Bestela, galde egin diezaietela Altsasuko gazteei, adibidez.

edo hala (zer erremedio!). Hori bai, "gureak" ez ditugu inoiz hirugarren herrialde batera "esportatuko", gure marroiak beste batzuek jan ditzaten. Izan ere, hori bera da zenbait gobernu ustel, primitibo, feudalista eta huts eginek daramatzatena egiten hamarkada luzez. Eta ez dago izenik eman beharrik. Hemen denok badakigu bakoitza nor den.